

Sobre las posibilidades docentes de las diferentes figuras de PDI

Dado que la normativa relativa a la participación de las diversas figuras de PDI en las tareas docentes ha ido cambiando, surge a menudo la duda sobre si un investigador puede colaborar, cuántos créditos puede asumir, etc. Por ello, creemos de interés resumir las posibilidades docentes del PDI:

El personal docente e investigador que figura en GAUR con una cierta capacidad docente bruta ($CDB > 0$), puede y debe participar en tareas docentes. Dejando a un lado al profesorado más habitual (a completa o a parcial), tienen reconocida en GAUR capacidad docente los Investigadores Doctores Permanentes (IDP/IKD), los ayudantes (AY/UL), los Investigadores Distinguidos (IDG/IRG) y los Lectores (LC/IRK).

Dentro del personal que en GAUR figura con capacidad docente bruta nula ($CDB = 0$) existen las siguientes posibilidades:

- Puede dar clases, sin restricciones, el PDI cuya figura es la de emérito/a (EU/UIE), visitante de universidad (VU/UIB) o visitante Ikerbasque adscrito a la UPV/EHU (VI/IKB).
- Los investigadores predoctorales en formación contratados al amparo del artículo 21 de la Ley 14/2011, de 1 de junio, de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación (LC-art. 21) pueden por regla general colaborar en la docencia, en determinadas circunstancias¹ y hasta un cierto número de horas (habitualmente 60 h/curso). Son, entre otros, los IPFMs (Investigador Predoctoral en Formación del MEC), IPFGs (IPF del Gobierno Vasco), IPU4 (IPF de la UPV/EHU convocatoria 2014), etc.
- También pueden colaborar en la docencia², hasta un cierto número de horas (habitualmente 80 h/curso), los investigadores doctores contratados al amparo del artículo 22 de la Ley 14/2011 (LC-art. 22). Se trata, entre otros, de los IDLCs (Investigadores Ley de la Ciencia), INGVs (Investigador Doctor del Gobierno Vasco), IJC (Investigador Juan de la Cierva), etc.
- No pueden participar en la docencia³ los investigadores contratados al amparo del artículo 15.1.a del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores (ET-art. 15.1) — es decir, los contratados para determinada obra o servicio, que denominamos generalmente PICs. Esto aplica tanto si se trata de doctores (INVU) como si no (INVE).

Conviene, además, matizar algunas cuestiones:

1. Los Investigadores Predoctorales en Formación (contratados al amparo de LC-art. 21) pueden colaborar en la docencia de Grado; la **colaboración implica** que el investigador en formación no asume la responsabilidad principal de la docencia ni de la calificación. Es decir, puede dar clase, pero no debe llevar el peso principal de la asignatura ni firmar actas. Además, en el caso de estas personas, la colaboración puede realizarse en paralelo al PDI responsable de la asignatura, de forma que ambos pueden atender simultáneamente grupos pequeños (de laboratorio u ordenador), en cuyo caso el encargo docente global recogido en GAUR se duplica, de forma que se les reconoce su labor a ambas personas..
2. Los Investigadores Doctores de acceso al Sistema de Ciencia y Tecnología (LC-art. 22) pueden colaborar en la docencia de Grado y Máster; de nuevo, la **colaboración implica** que el investigador no asume la responsabilidad principal de la docencia ni de la calificación. Es decir, puede dar clase, pero no debería llevar el peso principal de la asignatura ni firmar actas. También puede codirigir TFGs o TFM. Obviamente, esta labor se debe recoger en GAUR y reflejarse como Encargo Docente.
3. Como hemos dicho, INVUs e INVEs (ET-art. 15.1) no pueden participar en tareas docentes dado que la única finalidad es la realización de la obra o servicio sin contenido docente, pero sus contratos son, habitualmente, compatibles con otro contrato, adicional, de profesor a parcial (ej, LIU).

IIP mota ezberdinen irakats aukerei buruzko zenbait argibide

Ikertzaileek irakaskuntzan parte hartzeko aukerei buruzko araudia aldatuz joan denez eta kontratu mota askotxo daudenez, zalantzak sortzen dira maiz. Hori dela eta, egokia dirudi Irakasle eta Ikertzaile moten irakats ahalmenei eta aukerei buruzko laburpen bat egiteak.

Badaude GAURren irakats ahalmen gordin ez-nulua ($IAGd > 0$) duten irakasle eta ikertzaileak, eta horiek, dudarik gabe, irakasteko gaitasuna dute; baita betebeharra ere. Ohiko irakasle motak alde batera utzita, GAURrek IIP hauei aitortzen die irakats ahalmen jakin bat: Ikertzaile Doktore Iraunkorrei (IDP/IKD), laguntzaileei (AY/UL), Ikertzaile Gorenei (IDG/IKG) eta Irakurleei (LC/IRK).

Bestalde, GAURren badaude irakats ahalmen gordin nulurekin ($IAGd = 0$) agertzen diren hainbat irakasle eta ikertzaile mota. Haien artean lau multzo nagusi bereiz daitezke:

- Eskolak emateko aukera guztiak, mugarik gabe, dituzten irakasle bereziak: emerituak (EU/UIE), unibertsitate bisitariak (VU/UIB) eta UPV/EHUrako atxikituriko ikerbasque bisitariak (VI/IKB).
- 2011ko Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren 14/2011 Legearen 21. artikulua bitarteko kontratua duten doktore-aurreko ikertzaileak (ZL-21.art). Hauek normalean irakaskuntzan lagundu¹ dezakete, zenbait baldintza betetzen eta ordu-kopuru maximo jakin batekin (ohikoena, 60 h/ikasturte). Besteak beste, hauek dira: MECeko doktore-aurreko formakuntzako ikertzaileak (IPFM), Eusko Jaurlaritzako IPFak (IPFG), 2014ko deialdiko UPV/EHUko IPFak (IPU4), eta abar.
- Aurrekoen antzera, badaude irakaskuntzan laguntzeko² aukera ordu kopuru jakin batera arte (ohikoena, 80 h/ikasturte), 14/2011 Legearen 22. Artikuluaren babesean kontratatutako ikertzaile doktoreak. Ikertzaile horien artean honako hauek daude: Zientziaren Legeko Ikertzaile Doktoreak (IDLC), Eusko Jaurlaritzako Ikertzaile Doktoreak (INGV), Juan de la Cierva ikertzaileak (IJC), eta abar.
- Azkenik, badaude lan edo zerbitzu jakin baterako kontratatutako ikertzaileak, PIC deitu ohi direnak (Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 15.1 artikulua, LE-15.1 art., kontratatutakoak). Hauek ezin dute irakaskuntzan parte hartu³. Hori doktoreentzat (INVU) zein ez-doktoreentzat (INVE) aplikatzen da.

Komeni da, halaber, beste hiru kontu zehaztea:

1. Doktore-aurreko (formakuntzako) ikertzaileak (ZL-21.art) Gradu irakaskuntzan lagundu dezakete. **Laguntzeak** esan nahi du formatzen ari den ikertzaileak ez duela bere gain hartuko irakaskuntzako ardura nagusia ez eta kalifikatzearena ere. Hau da, eskolak eman ditzake, baina berak ezin du irakasgaiaren pisu nagusia eraman edo aktak sinatu. Ikertzaile hauek, gainera, irakasle nagusiarekin paraleloan ere eman dezakete klasea (ikasgelan batera jardun) talde txikien kasuan (laborategian edo ordenagailu praktiketan kasu). Hala bada, saio horietarako GAURrek irakats enkargu bikoitza jasoko du, eta lana bi pertsoneri aitortuko zaie.
2. Zientzia eta Teknologiaren Sistemaren sartzeko kontratua duten Ikertzaile Doktoreak (ZL-22.art) Graduetako eta Masterretako irakaskuntzan lagun dezakete. Berriz ere, **laguntzeak** esan nahi du irakasleak ezin duela bere gain hartu irakasgaiaren ardura nagusia edo aktak sinatzearena. GrALak eta MALak zuzendu ditzake, baina betiere beste irakasle batekin batera. Lan horiek guztiak, zer esanik ez, Irakats-Enkargu gisa jasoko dira GAURren.
3. Esan dugunez, INVU eta INVE kontratuak (LE-15.1 art) dituztenek ezin dute klaserik eman zeren eta haien kontratuaren helburu bakarra lan edo zerbitzu jakin bat egitea baita (irakats jardunik gabekoa), baina haien kontratuak bestelako irakasle kontratuekin (adib. LIU) bateragarriak izaten dira.

Leioan, 2017ko ekaina